

IZKUNTZEN ARTEAN

ANTXIÑAKO AMESA

Gaztetan eta euskera berba egiteko giro txarra egoan aldi aretan, guda-ostean, barri pozgarri bat entzun neban: Jesus'ek GURE AITA deritxogun otoitz ederra irakatsi eban tokian, Orio-Mendian, ogei ta amabi izkuntzatan eta zoi erreetan idatzita dagoala otoitz au. Euskeraz be bai.

Eta beti izan dot, arrezkero, otoitz orren argazki bat eskuratzeko guraria, eta, al ba'da, bertara joan eta ikustekoa be bai.

JERUSALEM'EN

Urte bat igaro da Lur Santua iker-tzera joatekoa erea izan nebala.

A nire poza! Zoietako otoitz euskaldun ori ikusteko erea izango neban! Baiña ez. Nire lagunak ez eben agertu ara joateko gogorik eta gidariak be ez euskuen eleiza ori erakutsi.

Neuk ez nekian nondik ibilli... eta ikusi barik etxera. Eta argazkirik be eskuratu barik.

BILLA TA BILLA

Oraintsu neure adiskide aundi bat joan zan ara eta mezede au eskatu neutson Lemoa'ko abade dan Erezkano'tar Jose Luis lagun onari: Argazki ori ekarteko andik gomutaki lez. Baietz esan eustan eta bertan atera bai argazkia, baiña oraindiño ez dot eskuratu.

Ez dot orregaitiño itxaropena galdu eta argazkiaren billa jarraitu dot.



OTOIZLARI-ALDIZKARIAN

«Iratzeder» Belok'eko abat eta neure adiskide aundi dodanak an eurrak ateraten daben OTOIZLARI aldizkaria bialtzen daust eta nik ZER bialtzen dautsot ordez. Eta azkenengo zenbakian ara non ikusten dodan pozez beterik zoi eder arein argazkia «Aita Gurea» idatzita dauala.

Eta antxe azaltzen dau izenpetu barik datorren idaz-lan batek zelan lortu zan otoitz ori an ipintea, baiña geiegi zeaztu barik.

ZELAKO EUSKERAZ

Otoitz orrek ba-dauko bere kondairea.

Gaurkoz, azertu dagigun pizza bat euskera au:

«Aita Gurea» da, España'tik artutakoaren erara eta ez «Gure Aita» Prantzian esaten dan erara.

«Donetsia» itza sartzeak, barritzaileen edo sabindarren eragiña erakusten dau.

«Erreguekuntzea» gaur itz oitueza jaku.

«Zelan zeruan alan lurrean», erdel-kutsu geiegioko esaldia da.

«Parketan» itzak ez dausku belarria ondo joten.

«Ezpabe» ori be erdel kutsu geiegioko da.

Eta idazkera-aldedik gauza arri-garriak daukaguz: «erregue», «eguin», «oguia», «leguez», «ichi», «gachetik».

Jokera bi agertzen dira ba or, bata sabindarren aurrekoa eta sabindarrrena bestea eta ortik atera lei nozkoa dan: gizaldi onen asierea baiño zerbait lenagokoa.

Baiña urrango zenbaki baten zeatzago azaldu al izango dogu kondairea, Arana'tar Sabin'en lan Guztietan 1956-1969 orrialdeetan agertzen dan lez.

«Otoizlari» aldizkariak 1901'eko eskutitz bat agertzen dau, Joanategi-ren eskutitz bat, eta orduan oraindik an ipiñi barik egoan, baiña ba-leiteke aurrerago idatzia izatea.

OLAZAR'tar Martin'ek